

Behin batean bazen gizadia munduan, eta orduan gizadiaren etsaiari argi eta garbi faxismo zeritzan, otso gaiztoa huraxe. Eta «onak» denak elkartu ziren «gaiztoen» kontra, gorriak eta xuriak eta horiak, eta gaiztoak porrokatu zituzten. Gerra haundi bat eta garaipen kaskar bat.

Onak ordura arteko faxismoaren lekua okupatu zuten, izan ere. Eta zaila da esaten, lekuaz gain zenbait faxismo ere hartu zuten kolkoan, garaileen harrapakin bezala.

Onak berriz ere onetan eta gaiztotan erdibanatu ziren. Hasi ziren gerran, gerra bero eta hotzetan, batek besteari ahal zuen dena kentzeko. Baina gerra beroak etxetik urruti egitea hobe zela, ohartu ziren Haundiak. Etxetik urruti bero-bero eta etxean hotz-hotz egiten zituzten beren gerrak.

Eta denbora asko pasa zenean, gerra hotzak ere ez zuela merezi, ikusi zuten. Gerra beroak garestiegi zirela. Hainbeste bero eta hotz baino hobe zela epele, pentsatu zuten.

Mahain bateetan eseri ziren onak eta gaiztoak: «Hori zurea da, bai, eta zurretzat; baina hau nirea da eta niretzat utzi behar duzu», esaten zion batak besteari. Eta horra nola mundua partitu zuten. Handik aurrera ez zion batak besteari ahal zuten dena kendu nahi. Elkarri ahal zuten dena saltzen eta erosten salatzzen ziren.

Eta elkarrekin koesistentzia bake-

Historiaren historiak

JOXE AZURMENDI

tsuan bizitzen hasi ziren, elkarri saltzen eta erosten eta batzuetan elkarri bildur ematen, gero bildurra kentzeko, adiskide onak bezala. Saltzen eta erosten hobe dela, ikusi zuten, gerra egitea baino.

Munduan feudalismo berri bat hasi zen eta negoziak ondo egiten ziren ordu berrian. Bi jauntxo feudal zeuden eta Jauntxo bakoitzaren mendean Gorte oso bat eta herri eta nazio asko. Jauntxo bakoitzak bere morroinei babes ematen zien beste Jauntxoaren kontra. Beste Jauntxo oso gaiztoa zen. «Munduan dagoen gauzarik okerrena beste Jauntxo hori da», esaten zien morroinei. Eta hori jendeari sinestazteko, Jauntxo bakoitzak noizean behin izugarriko gaiztakeriak egiten zituen, eta, orduan, beste Jauntxo santu denak baino hobe eta gozoagoa zen. Eta hain onazelako, morroinek zergak eta petxak pagatzen zizkioten.

Noizean behin, morroinen bat ere bi-

hurritzen zen bere Jauntxoaren kontra. «Ez duzu ikusten beste Jauntxo zer otso gaiztoa den?», esaten zion bere Jauntxoak. «Otso harek jango zaitu. Eta, zapa, berak jaten zuen, beste otsoak jan ez zezan.


Beste Jauntxoak esaten zuen orduan garrasika: «ikusi zer otso gaiztoa den beste hori!». Jendea ikaratuta. Eta Gortea biltzen zenean, esaten zuen Jauntxoak isil-isilik: «Jainkoari eskerrak, da ezer pasa. Bihurritu zen, ba, morroin burugabe hura! Ez al du ikusten, nire feudora pasa izan balitz, beste Jauntxoarekin problemak izango nituzkeela? Baina, Jainkoari eskerrak, orain dena bakean eta ordenuan dago».

Eta dena bake-bakean eta ordenuan zegoen munduan, bi Jauntxoek halaxe zainduta. Eta saltzen eta erosten jarraitzen zuten.

Handik hara sortu zen filosofia hura: munduan dagoen gauzarik okerrena, gauzak kanbiatu nahi izatea da. Ze, orduan, Jauntxoaren arteko konfliktuak sortzen dira, eta Jauntxoaren arteko konfliktuak ikaragarrikoak dira... Eta ez dago saltzen eta erosten segitzerik.

Baina, piskana piskana, morroinak hasi ziren akordatzen, munduan dagoen gauzarik okerrena, gauzak kanbiatu nahi izatea baldin bada, munduko gauzarik okerrena ez dela beste Jauntxoak. Eta, handik aurrera, Jauntxoek ez er kanbiatzea nahi zuten, eta morroinek dena kanbiatzea nahi zuten. Eta hala dabilta oraindik.

AZKAR - MERKE - ONDO



- Etxeentzat, lantegientzat, illuulentzat, kirol-lekuentzat, eliza, zinema, pelotaleku, almanen eta abarrentzat zeramikazko gainak edo estalkiak prefabrikatzen dira.

- Arku tinkatuak eta sabalarentzat habeak.

- Nahi diren bezalako eta neurriko ohol-tzadurak. Lata matxenbratuak balno habeak eta jartzen errazagoak.

- Zernahitarako dei ezazu leku hauetako batetara:

Exklusiva:

CUNCHILLOS-LEACHE, S.A.
Iturralde y Sult, 11-6. dcha.
Teléfono: 233400 - Pamplona

Ordezkaririk:

ARABAN: Exclusivas Serrano: Portal de Arriaga, 14-bis-5.º - Tel. 243344 - Vitoria.

GIPUZKOAN: Mendizabal-Unanue: Mayor, 1-bajo - Tel. 358678 - Andoain.

NAFARROAN: Gabino Ochoa de Eribe: Carmen, 34-2.º izda. - Tel. 211440 - Pamplona.

BIZKAIAN: Jesús de la Maza: Machín, 5-bis-5.º C - Tel. 4327266 - Bilbao-12.

LOGROÑO: Felipe Agorreta: Avda. Santiago, 5 - Tel. 645134 - Viana (Navarra).